

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

60/2022 Mozioa, ekainaren 9koa, zeinaren bidez Gizarte Politiken Sailari eta Indesa 2010 SL-ri eskatzen baitzaie ordainsariak lanbide arteko gutxieneko soldata (LGS) baino txikiagoak izanez gero, LGS osagarri bat ezar dadila zenbateko honekin: ezarritako ordainsariaren eta ekitaldi ekonomiko bakoitzeko LGS-aren zenbatekoaren arteko kendura

Arabako Batzar Nagusi hauetako VII. Gizarte Ongizatearen Batzordeak, 2022ko ekainaren 9an egindako bilkuran, mozio hau onetsi zuen:

60/2022 Mozioa, ekainaren 9koa, zeinaren bidez Gizarte Politiken Sailari eta Indesa 2010 SL-ri eskatzen baitzaie ordainsariak LGS baino txikiagoak izanez gero, LGS osagarri bat ezar dadila zenbateko honekin: ezarritako ordainsariaren eta ekitaldi ekonomiko bakoitzeko LGS-aren zenbatekoaren arteko kendura.

Arabako Batzar Nagusiek Gizarte Politiken Sailari eta Indesa 2010 SL-ko Administrazio Kontseiluari eskatzen diete otsailaren 22ko 152/2022 Errege Dekretuaren 3.1 artikuluan ezarritakoa betetzen jarrai dezatela, eta berma dezatela, ordainsariak LGS baino txikiagoak izanez gero, LGS osagarri bat ezarriko dela zenbateko honekin: ezarritako ordainsariaren eta ekitaldi ekonomiko bakoitzeko LGS-aren zenbatekoaren arteko kendura.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 9a

Presidente

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA